

Hernaniko Udaleko Gobernu batzarrak 2026ko martxoaren 26an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

HENASE, HERNANIKO NEKAZARI ELKARTEAREN ALDEKO DIRU-LAGUNTZA ZUZENA BERRITZEKO PROPOSAMENA (2026. URTEA)

HERNANIKO UDALAK, 2023ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Hernaniko udalaren eta Henaseren arteko diru laguntza hitzarmen onartzea erabakia hartu zuen.

Ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko abenduaren 21ean justifikazioa ontzat emateko erabakia hartu zuela.

Ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak, 2026ko otsailaren 5ean aho batez 2025eko zuriketa ontzat emateko erabakia hartu zuela.

Ikusita, Hitzarmena hurrengo 4 urteetan urtez urte berritu daitekeela.
Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2026ko martxoaren 26ko bilkuran **AHO BATEZ** emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da **AHO BATEZ**

Lehena.- Diru-laguntza zuzena berritzea. Hernaniko udala eta Henaseren arteko diru-laguntza hitzarmena beste urte betez berritzea.

Onuraduna: Henase elkarte

Diru Kopurua: 35.000 €

Aurrekontuko partida: 01.1510.481.02.439.00 2026-Henase. Kopurua: 35.000. - (AD-213/2026).

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Aitor Iztueta Garaikoetxea
Behin-behineko udal idazkaria
Hernanin 2026ko martxoaren 26an

Jakinarazpen hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.

